

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Latina II

USE 2019

www.ehu.es





Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Azterketa honek parte hauek ditu:

- 1. galdera: Testuaren itzulpena: 0-5 puntu.
- 2. galdera: Esaldi baten analisi sintaktikoa: 0-1 puntu.
- 3. galdera: Hiru hitzen analisi morfoloikoa: 0-1 puntu.
- 4. galdera: Lexikoa eta fonetika: 0-1 puntu.
- 5. galdera: Latin-literatura: 0-1 puntu.
- 6. galdera: Erromaren ondarearen iraupena: 0-1 puntu.

OHARRA: Latin-hiztegi batzuek **gramatika-eranskin bat** izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, eta abar). **Zilegi izango da erabiltzea**, hiztegiarekin batera, dela eranskina hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Este examen consta de las siguiente partes:

- Cuestión 1ª: Traducción del texto, que se calificará de 0 a 5 puntos.
- Cuestión 2ª: Análisis sintáctico de una frase: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 3ª: Análisis morfológico de tres palabras: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 4ª: Léxico y fonética: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 5ª: Literatura latina: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 6ª: Pervivencia del legado de Roma: de 0 a 1 punto.

NOTA: Algunos diccionarios de latín adjuntan un **anexo gramatical** (cuadros de declinaciones y verbos, etc.). **Se permitirá su uso** junto con el diccionario, ya sea que dicho anexo esté en las propias páginas de este o se trate de un cuadernillo independiente. Por otra parte, se permitirá el uso simultáneo de **dos diccionarios**: uno latino-español y otro latín-euskara.



A AUKERA

Zesarren tropak eta galiar etsaienak elkarrengandik gertu daude, baina bakoitza bere posizioaren babesean. Zesarrek etsaiak mugiarazi gura ditu.

Prima luce hostium equitatus ad castra accedit proeliumque cum nostris equitibus committit. Caesar consulto¹ equites cedere seque in castra recipere iubet;² simul ex omnibus partibus castra altiore vallo muniri iubet.³ Quibus rebus hostes invitati copias traducunt aciemque iniquo loco constituunt. (Caes., *Gall.*, V, 50-51).

Oharrak

- 1) *consulto*: adberbioa da, eta 'nahita, apropos' esan nahi du.
- 2) *iubet*: haren osagarri zuzenak *cedere* eta *recipere* dira.
- 3) *iubet*: bigarren *iubet* horren osagarri zuzena *muniri* da.

Galderak

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu
2. Egin ezazu *Caesar consulto equites cedere seque in castra recipere iubet* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu
3. Egin ezazu *castra*, *altiore* eta *committit* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu
4. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu
 - a) Adierazi zein diren latinezko *tepidum* eta *urficam* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikalari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
 - b) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *signum* eta *rationem* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Poesia lirikoa: Katulo, Horazio, Ovidio. 1 puntu
6. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu
 - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, obra irakurri duzula frogatzeko.
 - b) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:
Ipsa facto
In albis
Cedant arma togae
Nemo esse iudex in sua causa potest



B AUKERA

Greziarrek Troia suntsitu dutenean, Eneas bere familia guztiarekin ihesari eman beharrean aurkitzen da.

Haec locutus pius Aeneas¹ patrem in umeros tulit et parvum filium manu tenens domo² egressus est. Creusa³ eos sequebatur. Ita per tenebras vadunt, et Aeneam,⁴ quem dudum neque tela neque agmen Graecorum⁵ commovebant, nunc omnis aura, omnis sonus terret. (Ørberg, II, 38-39).

Oharrak

- 1) *Aeneas*: pertsona-izena da (*Aeneas*, -ae), hemen nominatibo singular maskulinoa; 'Eneas' erabiltzen da euskaraz.
- 2) *domo*: ablatiboa da, eta 'etxetik' itzuli behar da.
- 3) *Creusa*: pertsona-izena da (*Creusa*, -ae); 'Kreusa' erabiltzen da euskaraz.
- 4) *Aeneam*: *Aeneas*, -ae pertsona-izenaren akusatibo singular maskulinoa da.
- 5) *Graecorum*: ikus *Graecus*, -a, -um jentilizioa; 'greziar' esan nahi du.

Galderak

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu
2. Egin ezazu *Aeneam, quem dudum... omnis sonus terret* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu
3. Egin ezazu *haec, egressus est* eta *quem* hitzen analisi morfoloikoa. 1 puntu
4. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu
 - a) Adierazi zein diren latinezko *integrum* eta *litterātam* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikalari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
 - b) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *vigilāre* eta *sigillum* hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Prosa klasikoa: Zizeron. 1 puntu
6. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu
 - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, obra irakurri duzula frogatzeko.
 - b) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:
Alma mater
Statu quo
Ignorantia legis neminem excusat
Quot homines tot sententiae



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

LATINA II

- 1) Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.
 - Gehienez, 5 puntu.
 - Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakusten duen latin gramatikaren ezagutza.
- 2) Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.
 - Gehienez, puntu 1.
 - Analizatu behar dira bai esaldi osoaren egitura nagusia bai esaldi horretako elementu bakoitzaren funtzioa.
- 3) Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.
 - Gehienez, puntu 1.
 - Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda galdera hitzak testuinguru horretan duen balioari dagokiola (adib.: zer da «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuingurua kontuan hartu gabe).
- 4) Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latin lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.
 - Gehienez, puntu 1.
 - Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare hitzen artean bereiztea, aipatutako hitzen kopurua eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena.
- 5) Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.
 - Gehienez, puntu 1.
 - Galderan aipatzen den literatura generoa definitu behar du ikasleak, eta genero horren barruan sartzen diren egileei buruz dakiena azaldu (batez ere literatura genero horri dagozkion obrei buruz jardunez).
- 6) Bi galderetako bati bakarrik erantzun behar zaio:
 - Gehienez, puntu 1.
 - a) Itzulitako obra latindar baten irakurketa.

Galderaren helburu bakarra da jakitea ikasleak eskatu zaion obra irakurri ote duen; horretarako behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.
 - b) Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren alorreko esaldien eta esaeren zerrenda.

Esaldien itzulpena edota iruzkin labur bat eskatzen da.

OHARRA: Zenbait latin-hiztegitan, gramatikari buruzko eranskina dator (deklinabideen taulak, aditzen taulak...) eta ezinbestekoa da epaimahai guztietan irizpide bera izatea horien erabileraz: zilegi izango da erabiltzea, hiztegiarekin batera, dela gehigarria hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak bi hiztegi erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.